

BEZEROEKIKO HARREMANA

Beharrezkoa da, bizikletak dituzten eta energia maneiatzen duten enprekin harremanetan jartzea. Bezeroak gure proiektuko ezinbesteko zati bat dira, azken batean beraientzako izango delako proiektua.

Hasieran, bezeroak erakartzeko, lehen aipatu bezala, komunikazio kanal ezberdinak erabiliko ditugu, sare sozialak, egunkariak... gure proiektua jende gehiagori heltzeko.

Argi daukagu, ezinbestekoa dela bezeroekin harreman konstante bat mantentzea. Horregatik gaur egun kontuan izanda sare sozialek presentzia handi dutela plataforma horietan oso aktibo egongo gara, deiak egiteko aukera izando dugu eta aurrez-aurre laguntza pertsonala jasotzeko aukera ere.

Gainera, gure enpresan bezeroak geroz eta denbora gehiago egoten badira, beraientzat erreztasunak, deskontuak edo eskaintza bereziak eskuragarri izango dituzte.